

ZUBEROAKO MASKARADA (1993 – 2007)



Argazki erakusketa – Exposición de fotografías

EGILEARI BURUZ

Jonmikel Intsausti Mercero (Lazkao, Gipuzkoa, 1967). Txikitatik Zumarragara joanda bertan bizi da gaur egun. Informatikan lizentziatua, Urretxu-Zumarragako Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartearen laguntzaile eta Ostadar Mendi Taldeko zuzendaritza kide da. Gustukoak ditu mendia eta naturako argazkia, eta hortik ere bideratu du bere afizioa Maskarada bezalako jaietako argazkiak ateratzera.

1993ko urtarrilean Zuberoako Urdiñarbek herrian bertan antolatu zuen Maskaradarako gonbitea jaso zuen; harrez geroztik Iparraldera eta Zuberoara lagunekin bidaia ugari eginez, gaur egunera arte hainbat eta hainbat Maskarada ekitaldiren ikusle izan da, urtez urte argazkiak atera dituelarik, eta bere burua neguko festa honen barruan harrapatuz.

2012ko urtarrilean Zumarragako Kultur-Etxean, eta gero Beasainen, Tafallan, Urdiñarben, Zarauzko Photomuseum-ean, eta Derioko Kultur Birika Kultur-Etxean, dossier honetan ageri diren argazkiekin erakusketa bat ireki du, Maskaradaren berri zabaltzeko asmoz, eta Iparralde zein Hegoalde diren muga kulturalak lausotzeko asmoz.

Azkeneko hilabeteotan, erakusketak zabalkunde handia izan du hainbat medio idatzitan, irratiari eta telebistan.

Zuen Kultur Etxean erakusketa hau aurkezteari nahi baduzue, berarekin jar zaitezke kontaktuan bai telefonoz bai posta elektronikoz ondorengo helbideetan:

- E-posta: jmintsauti@gmail.com
- Telefonoa: (+34) 619418289

2013ko apirilak 15



Argazkia: © Asier Zaldúa – Diario de Noticias de Gipuzkoa

SOBRE EL AUTOR

Jonmikel Intsausti Mercero (Lazkao, Gipuzkoa, 1967). Actualmente reside en Zumarraga (Gipuzkoa). Licenciado en Informática, es colaborador de la Sociedad Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartea de Urretxu-Zumarraga así como miembro de la directiva de la Sociedad de Montaña Ostadar. Es aficionado a la fotografía de montaña y naturaleza, y es desde este tipo de afición a la fotografía desde donde ha derivado a su vez su afición para la fotografía de eventos como la Maskarada de Zuberoa.

En enero de 1993 recibió la invitación para acudir a Urdiñarbe (Zuberoa) y presenciar la Maskarada que allí entonces se celebró; desde entonces y hasta la actualidad ha acudido numerosas ocasiones a Zuberoa y ha capturado en todas ellas las imágenes que se presentan en esta exposición, quedándose atrapado en la fiesta de carnaval suletina.

En enero de 2012 en la Casa de Cultura de Zumarraga, y posteriormente en Beasain, Tafalla, Urdiñarbe, el Photomuseum de Zarautz, y en la Casa de Cultura Kultur Birika de Derio, presenta una exposición con las fotografías documentadas en este dossier, con el objetivo de dar a conocer este tipo de carnaval y fortalecer a su vez los lazos culturales entre ambos lados de la muga.

En los últimos meses, la exposición ha tenido notoria presencia en diversos medios de prensa escrita, radio y televisión.

En el caso de estar interesados en mostrar esta exposición en su Casa de Cultura, pueden ponerse en contacto con el autor en las siguientes direcciones de correo electrónico y teléfono:

- E-mail: jmintsauti@gmail.com
- Teléfono: (+34) 619418289



Fotografía: © Asier Zaldúa – Diario de Noticias de Gipuzkoa

15 de abril de 2013

LANARI BURUZ.

1993tik 2007ra bitartean ateratako argazkien artean osatutako bilduma da hau, Zuberoara urtez urte egindako hainbat bidaian zehar.

Guztira, 50 argazki osatzen dute bilduma hau, jatorrizko diapositiba euskarrian ateratako irudiak direlarik. Argazki erakusketa honek balio erantsia ondoko hauek dira:

- Maskarada batean ageri diren pertsonaia zein ekintza nagusiak kontuan hartuz, ja pertsonaia guztiak ageri dira lan honen barnean, pertsonaia gorriak zein beltzak, dantzari aitzindari guztiak zein buhameak, kauterak, xorroxak edo kerestuak... goizaldean egiten diren barrikada saioak, musikariak, arratsaldean egiten diren ofizioetako atalak, dantzak (barrikada zein godalet dantza barne), Pitxuri egindako ebakuntza zein azken kantorea...
- 1993tik aurrera ateratako argazkiak erakusten ditu, hain zuzen Hegoaldeko biztanleontzako Iparralde ezagunago bihurtzen ari zen garaia.
- Helburu didaktikoarekin egindako erakusketa da, Maskaradaren berri, jai hau zer den ere erakusten du. Halaber, erakusketa honek mugaz bestaldeko kulturak ezagutarazteko helburua du.

50 argazkiak A3 tamainan inprimatuak izan dira (40x50 cm neurriko kolore beltzeko kartulinetan jarriak). Argazkia edertzen duen paspartu zuria ere erabilgarri baldin eta argazkia marko baten barruan erakutsia den. Bestalde, Zuberoa eta Maskaradari buruz euskaraz eta gaztelaniaz informazioa azaltzen duten 1x0,5 m neurriko panel bana ere badituzte.

Jaso beza ikusleak urtez urte Zuberoako plazetan ospatzen diren Maskaradak bertatik ezagutzeko gonbitea, Zuberoako Maskarada Euskal Herrian antzeztzen den herri-antzerkiko adibide ikusgarrienetako bat dugu-eta.

SOBRE LA OBRA.

La siguiente es una colección de fotografías obtenidas entre los años 1993 y 2007, realizadas durante varias visitas a Zuberoa.

En total, 50 fotografías componen esta colección, todas ellas imágenes obtenidas a partir de originales en formato diapositiva. El valor añadido de estas fotografías se puede resumir en los siguientes puntos.

- Tomando en cuenta los personajes y acciones que son representadas en las Maskaradas, prácticamente todos los personajes principales aparecen reflejados en estas fotografías, personajes rojos 'gorriak' y negros 'beltzak', los principales bailarines, los llamados 'aitzindariak' y los gitanos 'buhameak', quincalleros 'kauterak', afiladores 'xorroxak', castradores 'kerestuak'... las barricadas celebradas en la sesión matinal, los músicos, las escenificaciones de los oficios durante la tarde, los bailes (incluidas las barricadas o la famosa danza del vaso 'godalet dantza'), la operación a Pitxu o la última canción 'azken kantorea'.
- Recoge fotografías de imágenes tomadas desde 1993, década en la cual Iparralde comenzó a conocerse más para los habitantes del otro lado de la frontera.
- La exposición tiene a su vez el objetivo de, de una forma didáctica, dar a conocer la fiesta de la Maskarada de Zuberoa. De la misma forma, esta exposición tiene el objetivo de acercar las culturas de ambos lados de la muga.

La colección está compuesta por 50 fotografías impresas en formato A3 (presentadas en cartulina base -color negro- 40x50 cm). Dispongo a su vez de un paspartú blanco para las fotos en el caso de que éstas sean expuestas dentro de un marco, y sendos paneles informativos en euskara y castellano de 1x0,5 m. con información sobre Zuberoa y la Maskarada.

Reciba el espectador la invitación de asistir a alguna de las representaciones de la Maskarada, uno de los mejores ejemplos de teatro popular que todavía se celebran en Euskal Herria, que año tras año se celebran en las plazas de Zuberoa.

PRENTSAN ZABALKUNTZA / DIFUSIÓN EN PRENSA.

Prentsan (paperezko zein Internetekoan), irati eta telebistetan zabalkuntza handia egin da erakusketari buruz, eta horren adibide ondoko esteka eta dokumentuak ditugu.

Hasta el momento se ha realizado una amplia difusión de la exposición en prensa (tanto tradicional como por Internet), radio y televisión. Los siguientes son documentos y enlaces a diferentes medios de comunicación con información sobre la exposición:

- 2012-01-10 - Diario de Noticias: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2012/01/10/vecinos/urola-garaia/iparraldera-begira>
- 2012-01-13 - Otamotz (Urretxu-Zumarragako herri aldizkaria)
 - Artikulua: http://www.otamotz.com/index.php?option=com_content&task=view&id=8550&Itemid=1229
 - http://www.otamotz.com/index.php?option=com_content&task=view&id=8567&Itemid=1229
 - YouTube bideoa: http://www.youtube.com/watch?v=oEgkgoHaA5g&feature=player_embedded
- 2012-01-13 - Gotzon Aranbururen bideoa (YouTube): <http://www.youtube.com/watch?v=E4qdFhBcuBk>
- 2012-01-13 - KKinzona Irratia (Urretxu-Zumarraga) - mp3 saioa. 2012ko urtarilaren 13an, Gu eta Gutarrak saioan Jonmikel Intsausti Maskaraden inguruan egindako elkarrizketa. http://www.ivoox.com/qu-ta-gutar-maskaradak_md_989706_1.mp3
- 2012-01-14 - Goierriko Hitza: <http://goierri.hitza.info/2012/01/14/maskaradari-buruzko-erakusketa-ireki-dute-zumarragan/>
- 2012-01-15 - El Diario Vasco (gaztelaniaz): <http://www.diariovasco.com/v/20120115/alto-urola/jonmikel-intsausti-lleva-maskarada-20120115.html>
- 2012-01-21 - Sustatu: <http://sustatu.com/1326665636>
- 2012-01-15 – Goiberri: <http://goiberri.hitza.info/files/2012/03/GoiBerri-003.pdf>
- 2012-02-17 - Goierri telebista: <http://vimeo.com/37119566>
- 2012-02-19 - Amarauna (Euskadi Irratia): <http://www.eitb.com/eu/audioak/osoak/833183/maskarada-argazkitan-audioa--amarauna/>
- 2012-04-08 – Martín Galdiano: <http://martinalgaldiano.com/noticias/62-exposicion-fotografica-zuberoako-maskarada-1997-2003.html>
- 2012-04: Entorno Zona Media aldizkaria (Nafarroa): http://issuu.com/az2comunicacion/docs/ezm_64
- 2012-05 – Bil-Xokoa Kultur Elkartea (Urdirarbe): <http://batmantxo.over-blog.com/>
- 2012-11-20 – Nontzeberri - <http://www.nontzeberri.com/Albiste7.aspx?a=4385>
- 2012-11- Dantzan.com:
 - <http://www.dantzan.com/hemeroteca/el-photomuseum-presenta-obras-sobre-la-mascarada-de-zuberoa>
 - <http://www.dantzan.com/hemeroteca/maskaradei-buruzko-erakusketa-gaur-zabalduko-dute-zarautzen>
- 2012-11 - Gaztezulo:
 - http://www.gaztezulo.com/berriak_view.php?uid=3091
 - http://www.gaztezulo.com/noticias_adjunto/201211209043MASKA_RADA_TRIPTIKOA.pdf
- 2012-11-21 - El Diario Vasco (gaztelaniaz): <http://www.diariovasco.com/v/20121121/costa-urola/photomuseum-presenta-obras-sobre-20121121.html>
- 2012-11-27 - Zarauzko Hitza (euskara): <http://zarautz.hitza.info/2012/11/27/inauteriak-mugaz-besaldetik/>
- 2012-11 – Naiz.info: <http://www.naiz.info/es/agenda/evento/zuberoako-maskarada>

- 2012 -11 – Kulturklik: <http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/la-maskarada-de-zuberoa/>
- 2012 -11 – Gipuzkoakomuseoak.net
<http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/exposiciones/exposicion.php?id=eu&Nmuseo=1259069238&Nexposic=1353664332>
- 2012 -11 – Masdearte.com:
http://www.masdearte.com/index.php?option=com_elements&view=events&id=38455&Itemid=29&layout=eventb
- 2012 -11 – Guía del ocio (gaztelaniaz):
http://www.guiadelocio.com/layout/set/madrid_restaurant_week/arte/guipuzcoa/zarautz/jon-mikel-intsausti.-la-maskarada-de-zuberoa
- 2012-11-26 – EUSKAL TELEBISTA
 - Gaur egun (gaua) - euskaraz:
<http://www.eitb.tv/eu/#/bideoa/1990629105001> (33:27 minutu-segunduan)
 - Teleberri (gaua) - gaztelaniaz:
<http://www.eitb.tv/eu/#/bideoa/1990629122001> (42:55 minutu-segunduan)
- 2013 -02 – Kulturbirika agenda – Derioko Udala:
http://www.deriokoudala.net/es-ES/Documents/agenda_%20febrero_2013.pdf |
<http://www.kulturbirika.eu/>
- 2013 -02 – Kulturklik: <http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/zuberoako-maskarada-jon-mikel-intsaustiren-argazki-erakusketa-zuberoako-maskarada-exposicion-fotografica-de-jon-mikel-intsausti/>
- 2013 -02-07 – Hemendik (Txorierri). Diario Deia.
http://dl.dropbox.com/u/19822792/maskarada/pub/hemendik_txorie_070213_30965.pdf

Exposiciones realizadas y previstas para próximos meses:

- **Zumarragako Kultur Etxea** (Gipuzkoa), 2012ko urtarrilaren 13tik 22ra bitartean.
- **Beasaingo Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoa** (Gipuzkoa), 2012 otsailaren 17tik 26ra bitartean
- **Tafallako Kultur Etxea** (Nafarroa), 2012ko apirilaren 4tik 18ra bitartean.
- **Urdiñarbe** (Zuberoa), 2012ko maiatzaren 20an, Musikaren Egüean.
- **Zarauzko Photomuseum argazki museoa** (Gipuzkoa) – 2012ko azaroaren 20tik 2013ko urtarrilaren 8ra bitartean.
- **Derioko Kultur Birika Kultur Etxea** (Bizkaia) - 2013ko otsailaren 4tik 27ra bitartean.
- **Markina-Xemeingo Uhagon Kultur Etxea** (Bizkaia), 2013ko maiatzaren 3tik ekainaren 23ra bitartean.
- **Arabar Errioxa** (zehaztu gabeko data).

Erakusketarako prestatutako dokumentazioa

(Documentación preparada para la exposición)

ZUBEROA, EREMUZ TTIPI ETA KULTURAZ HANDI



Pier Paul Berzaitz kantariak dioen bezala, Zuberoa, eremuz ttipi eta Kulturaz handiko herria da.

Hamahiru mila biztanle, errepide gaixto andana, familia neurriko laborantza ttipia, industria sare hilurrana eta, hitz batez erraiteko, indize sozioekonomiko gehienak gorri ageri dituen Zuberoa xaharra ezinago bizirik dago kulturez gantz. Zuberoako 35 herrietan baditugu 20 dantza eskola eta urtero jotzen dituzte pastoral bat eta maskarada bat, urrun atxikiz bertako kultura udatiarrendako agerpen folkloriko huts bat izateko. Kultura bertako bizimolde bat dugu, elkarrekin bizi nahizko bilaketa emozional partekatu bat. Funtsean, xiberotarren bizitzeko moldeak.

Zuberoak hiru eskualde hauek ditu, tradizioz:

- PETTARRA (Behe Zuberoa edo Barhoa izenez ere ezaguna), iparraldean.

- ARBAILA, erdialdean. Bi alde ditu: Arbaila Handia eta Arbaila Txipia.
- BASABÜRÜA (Goi Zuberoa izenez ere ezaguna), hegoaldean. Bi ibarretan bereizten da: Ibarresküin eta Ibarrezker.

Zuberoa da, Euskal Herrian, kilometro karratuko biztanle-kopuru txikiena duen herrialdea (17,0 biztanle km²-ko). XIX. mendean baino herriar gutxiago bizi dira, gaur egun, Zuberoan; izan ere, hazkunde negatiboa %-38,1 izan da 1877-2001 bitartean. Zuberotar asko eta asko Lapurdi aldera, Parisa, Biarnora edo Frantziako beste hiri handietara joan dira. Hori dela eta, azken urteotan, herriak hustu eta elkartu egin dira udalerriak osatzeko; Lakarri-Arhane-Sarrikota gainek, esate baterako, 1900. urtean zituen biztanleen hiru laurdenak baino gehiago galdu ditu XX. mendean.

Zuberoak du, halaber, hilkortasun-tasa handiena Euskal Herrian, izan ere bertan dago biztanleriarik zaharrena: 100 gazteko 174 zahar daude. Migrazio-mugimenduei dagokienez, 1960ko eta 1970eko hamarraldietan saldo negatiboak izan ziren nagusi Zuberoan, hau da, gehiago izan ziren herrialdea uzten zutenak bertara joaten zirenak baino. Joera hori, ordea, urtetik urtera leunduz joan da, eta 1999-2005 bitartean saldo positiboak izan ditu: 82 lagun gehiago izan dira Zuberoara iritsitakoak bertatik joandakoak baino.

Zuberoak Euskal Herria behar du, eta Euskal Herriak Zuberoa. Ezagutu dezagun!

ZUBEROAKO MASKARADA

Zuberoako Maskarada Zuberoako ZUBEROAKO NEGUKO INAUTERIA, gidoi edo gertakari hurrenkera zehatzeko ikuskizuna hain zuzen, antzerkiko baliabidez osaturikoa. Jatorri zaharreko jaia da, XVI. mendean Europatik zetorren korrontetik etorria. Garai batean laurogei bat dantzarik parte hartzen bazuten ere —eta Maskarada gehiago batera antzeztzen baziren ere— (kontuan izan Zuberoak gazte eta biztanle gehiago zituela), gaur egun, hogeitaz batek lagun osatzen dituzte Maskaradak. Garai zaharretan, solik gizonak antzeztzen zituzten, berdin gizon zein emakume papera betez, urtarilaren 1ean hasten ziren Maskarada emaile den herrian eta inaute astez amaitzen ziren berriz herri berean. Egun urtaril erdialdean hasi eta apiril amaiera ere iristen dira Maskaradak, ia igande guztietan Zuberoako herri askotan antzeztzen direnak. Zuberoako herri desberdin batek hartzen du antzezteko txanda urtero, antzezpena igandez igande Zuberoako beste herrietara eramaten dutelarik.

Nicole Lougarot zuberotarraren ustetan (*Les Bohémiens* izeneko liburua argitaratu zuen 2009an), Maskaradak erritual ziganen (*ijito*) baten parte dira.

Dantzak, bertsoak eta kantuak leku berezia dute pertsonaia jakin batzuen inguruan gertatzen den ikuskizunean. Ikuskizun honetan nabarmentzeko dira xorrotzek kantatzen dituzten koplak, dantzari aitzindarien jauziak, kerestuen elkarriketa, xorrotzen emankizuna, buhameen erregearen peredikua, kauteren (Kabanak emandako) peredikua eta Pitxuren testamentua, Pitxuri egindako ebakuntza, kauterek eta medikuak bizkarrean dituzten grafitiak...

PERTSONAIAK

Egun normalean 25 lagunek osatzen dute segizioa eta alde bi kontrajarrietan banatzen dira: alde batetik Gorriak, dotore eta ordenatuak, horietariko batzuk dantzari oso trebeak, sedentarioak lirateke eta, bestalde Beltzak, desordenatuak eta zarpailak, zikinak, horietariko batzuk ibiltariak. Horien artean Pitxu nabarmentzen da, kauteretako bat, zirikatzaile nekaezina eta Maskaradaren osoaren bihotza.

Hona hemen Zuberoako maskaradaren pertsonaia nagusiak. Gorrien artean lehenengo bost pertsonaia dira dantzari aitzindariak.

- TXERRERO: Muturrean zaldi buztana itsatsita duen makila du. Gerrian sei brontzezko zintzarri daramatza. Beste inauteri jaietan egiten den bezalaxe (e.g. Ituren eta Zubietako Joaldunak), Barrikada dantzatzean, zaldi buztana lurretik pasatzen du jeinu txarrak uxatzeko asmoz.
- GATUZAINA: pantografo itxura duen instrumentuarekin edozer har dezake.
- KANTINIERSA: XIX. mendearen moduan jantzitako kantinera da. Lehen, buhamina bat zen horren lekuan. Louis Lucien Bonaparteri harrera egiteko jarri zen kantiniersa bat Printze bati hobeki omen zihoakiolakoan. Kerestuen saioan parte hartzen du.
- ZAMALZAINA: Zaldia, Maskaradaren pertsonaia nagusietako bat da.
- ENTSEÑARIA: Zuberoako banderaren eramailea. Zamalzainarekin batera ikuskizuneko dantzaririk trebeena.
- JAUNA ETA ANDEREA: Jauntxoek dantzan egiten diren lan ezberdinak zuzentzen dituzte Oro agintzen dute Maskaradan. Gizonak fraka janzten du eta bastoi eta sable bat daramatza

(gero xorrotzek zorrotzuko dutena). Andreak zurizko soineko arina du.

- LABORARIA ETA LABORARISA: Nekazariak, ilunez jantzita. Gizonak akuilua erabiltzen du, andreak, berriz, saskia.
- MARETXALAK: Zamalzainaren errementariak (hiruzpalau). Kasabet gorria dute eta zaragoila (galtza) beltzak.
- KERESTUAK: Zamalzainaren bi zikiratzaileak, patroia eta mutila: biarnesez egiten dute. Dena dela ere, zaila da esatea hauek pertsonaia gorri edo beltz diren.
- KÜKÜILEROAK. Gazteenak; ez dute egiazko lanik Maskaradetan baina biharko dantzariak hori dira, ikasteko eskola hoberenean baitira Maskaradetan.

Pertsonaia beltzen artean...

- XORROTXAK: Zorrotzaileak, patroia eta mutila. Jaunaren ezpata zorrotzen dute, buruan disekatutako kategorria duen kapela dutelarik. Atal atalen arteko koplak kantatzen dituzte.
- BUHAMEAK: Lauek zurezko ezpata handia dute dantzatzeko. BUHAMEEN ERREGEA da euren nagusi. Patroi koloredun bitxia duen oihalaz dute egina jantzia.
- KAUTERAK: Bospasei dira, batek (BEDEZIA edo GARRETA) mediku gisa jantzita. Sustraiez egindako bastoiak dituzte, azeri buztana, brontzezko zintzarriak, lumak dituzten kapela beltzak dituztenak. Arropa zaharra erabiltzen dute, maila apala adierazteko. Garai zaharretako galdaragile *hojalateroen* (kinkien) papera betetzen dute, hain xuxen, Jaunaren pertza dute konpontzen. KABANA handia da euren nagusia, (Agosti Xahoren garaietan Oberñi izenekoak).

Bere laguntzaileak ondokoak dira, PUPU, PITXU, FRIPU, eta gutxiagotan TTUTTU, GIRRU, BIZUNU, PETRU... Noizbait, PUPUNA eta FRIPUNA KAUTERESAK ere agertu dira. Ahazturik geratu dira beste pertsonaia batzuk, artzaina eta atxuriak, bizargina, notarioa, emakume espainiarra, kedar-garbitzailea, eskaleak eta apezpikua. Besteak, ordea, BUHAMINA edo HARTZA bezala, noizbehinka azaldu dira Maskaradetan.

ZATIAK

Maskaradak bi saio desberdinetan egiten da egun, goizez eta arratsaldez.

Barrikada haustia (goizean). Behin herrira helduta, erakustaldia prestatzeko segizioa herrian zehar ibiltzen da. Arribadaren soinua jarraituz herriko etxe nagusiak bisitatu dituzte, non jateko eta edateko ematen dieten. Garai zaharretan benetako barrikadak jartzen omen ziren: hortik baitatorkio izena Maskaradaren zati honi.

Arratsaldeko saioa. Arratsaldeko 3etan edo 4etan saioa herriko plazan edo pilotalekuan antzeztzen hasten da. Saio honetan, dantzak, ofizioetako saioak, hitzaldiak, kantak eta koplak tartekatzen dira.

Hauek dira arratsaldez osatzen diren atal nagusiak:

- MUÑEINAK eta MARIANAK dantzatzen dira.
- MARETXALAK: Zamalzainen ondoan dantzatzen dute, lehendabizi harrapatzeko eta gero ferrak jartzeko.
- BRALEA: Gorriak eta publikoan harturik diren neskatilek katea bat egiten dute; hiru puxka badira Bralea dantzan. KONTREPASAK (jauzia

motel motel emanik), BRALETIK JAUZTEA (Aitzindariak puntu hoberenak erakusten dituzte hor), eta KARAKOILTZEA: Entseñariak du hori eramaten eta katea mugiarazten barnetik eta kanpotik. Denboraren itzultzea lizateke. Junes Casenave-Harigilek dio eguzkiaren dantza dela, biziaren eta argiaren laidatzeko.

- Dantzari aitzindariak : OSTALERSA (dantza).
- XORROTXAK: Zorrotzaileak plazan sartu, abestiaren bitartez agurtu eta Jaunaren ezpata zorroztea dute helburu. Kerestuek bezala, hiru saiakera behar izango dituzte. Lehendabizikoan mutila kaleratzen dute, bigarrenean Pitxu kontratatu eta okerrago eta hirugarrenean, berriro mutila onartuta, lana ondo betetzen dute.
- KERESTUAK: Zamalzain zaldiaren zikiratzea antzeztzen dute. Plazan sartzeko Buhame marxa erabiltzen dute. Dantzan zikiratze lana parodiatzen dute: mutila asmatu ez eta patroiak kaleratzen du. Patroiak mutil berri bat kontratatu, Pitxu izenekoa (Hou Pitxu hou! deituz), eta antzinakoa baino inutillago dela erakusten du, Zamalzain eta Kantinierra nahasi egiten dituelako. Berriro, mutila onartu eta Zamalzain zikiratzen dute, barrabilak ikusleengana botaz.
- Dantzari aitzindariak: GABOTA izeneko dantza egiten dute, biribilean egiten den dantza korala.
- BUHAMEAK: Plazan sartzen dira zarata ateratzen. Bere zurezko ezpatak erabiliz basaki dantzaten hasi eta nagusiak munduan egindako bere balentriak adierazten esparruan zehar ibiltzen da.
- GODALET DANTZA. Nagusien aurrean ardo baso bat kokatu eta bakoitzak baso gainean dantzatzen du. Oso dantza zaila da, dantzari

bakoitzak txikito-basoaren gainean bota barik salto egin behar duelako. Aitzindariak dantzatzen dute, baita azkenik Pitxu kauterak bere bota handiekin ere.

- KAUTERAK: Dantza bat egiten dute lehenik buruz buru, makurturik euren txapelak lurraren ondoan kulunkatuz. Ondoren, Kabanak liburu bat eskuan hartuta, bere peredikua irakurtzen dio publikoari. Kontuan izan, inpunitate osoz, Kabanak bisitatzen duen herriaren kritika oso zorrotza egitera irits daitekeela. Ostera, kauterek Jaunaren pertza konpontzeko enkargua jasotzen dute. Konpondu eta jaunak sos batzuk botatzen ditu lurrera. Sosen bila lurrera botatzen dira kauterak eta Pitxu geratzen da euren guztien azpian. Altxatzean, Pitxu hil dela ikusten dute. Bedezia etorri eta ebakuntza-gela bat inprobisatzen dute, buhameak eta kauterak makurturik (urtez urte denetakorik atera izan du bedeziak ebakuntzan Pitxuren gorputzetik – haragi puskak, hildako katutxoak, oilo-buruak, gozokiak...). Bitartean Kabanak Pitxuren testamentua irakurtzen du... Azkenik Pitxu arrapizten da.
- Azken kantorea kantatzen dute
- Inauteria bukatzeko berriro Arribada dantzatzen dute, bai pertsonaia guztiek bai ikusleek.

ZUBEROATIK KANPOKO ERAKUSTALDIAK

Normalean Maskarada ez dute Zuberoatik kanpo egiten, hala ere, batzuetan Baiona inguruan ere egin dute.

Hego Euskal Herrian Gaztedik 1954ko maiatzaren 9an burutu zituen aurrerago azalduko diren

Zuberoako dantza batzuk lehen aldiz Dindirri dantza taldeak irakatsita. Gaztedik 1994ko otsailean burutu zuen Santutxun (Bilbo) eta gero Aretxabaletan bere lehen Maskarada osoa, zalantzarik gabe gertaera historikotzat jo daitekeena. Ordura arte Donostiako Argia taldeak soilik lortu zuen Zuberoako Maskarada oso bat kaleratzea 1980ko hamarkadan. Hala ere, hauek jatorrian egiten den modu bereborean aurkeztu zuten bitartean, Gaztedik Bilboko eta Santutxuko egoera soziolinguistikora egokitutako antzeztan bat prestatzea lortu zuen (euskara batuaz eta kerestuen biarnesez ordez, galizieraz).

ITURRIAK:

- Maskaradak eta Buhameak (Nicole Lougarot-en webgunea) - <http://mascarades.eu/>
- Wikipedia.
- ARGIA astekaria. 2007/01/07 | 2002/01/27.
- Maskaradak – Les Mascarades - Sü Azia sail berezia (<http://ttiki.com/33800>).
- Euskaltzaindia - Kepa Fernandez de Larrinoa (<http://ttiki.com/33802>).
- Les Bohémiens (Nicole Lougarot). Gatzain argitaletxea. ISBN: ISBN 2-913842-50-X
- Euskonews (<http://ttiki.com/33801>).
- Zuberoako Maskaradak – Euskal Herriko kale-antzerkiaren aintzindari (ISBN: 84-88379-51-X).
- Godalet dantza. <http://ttiki.com/33849> | <http://ttiki.com/33861>
- Euskomedia. Zuberoako Maskarada (<http://ttiki.com/33850>) – Erakusketan jarria.
- Enciclopedia Auñamendi - <http://ttiki.com/33915>

ZUBEROA, PEQUEÑA EN TERRITORIO, GRANDE EN CULTURA



Tal y como escribe el cantante Pier Paul Berzaitz, Zuberoa es pequeña en territorio, pero grande en cultura.

Con trece mil habitantes, unas carreteras endemoniadas, una agricultura “familiar”, un tejido industrial prácticamente agonizante, en resumen, con unos baremos socioeconómicos en situación de alerta, Zuberoa brilla, sin lugar a dudas, por su vivacidad cultural y su talento creativo en el terreno del canto y del baile. Los 35 pueblos suletinos con sus 20 escuelas de baile, una pastoral y una mascarada al año, están lejos, muy lejos, de las manifestaciones folclóricas con “fines” turísticos. Lo que observamos aquí es un modo de vida, una búsqueda emocional compartida para vivir juntos: de este modo la cultura forma parte integrante de la vida de los habitantes del territorio más oriental de Euskal Herria.

Son tres tradicionalmente las comarcas de Zuberoa:

- PETTARRA (conocida como la Baja Zuberoa o Barhoa), al Norte.
- ARBAILA, en el centro. Dividida en dos subzonas: Arbaila Handia y Arbaila Txipia.
- BASABÜRÜA (también conocida como la Alta Zuberoa), en el Sur. Se divide en dos valles, Ibarresküin e Ibarrezker.

Zuberoa es en Euskal Herria, la provincia con menor población por kilómetro cuadrado (17,0 habitantes por km²). Actualmente viven en ella menos habitantes que los que tenía en el siglo XIX; su tasa de crecimiento ha sido negativa entre 1877 y 2001 (-38,1%). Muchos zuberotarras han tenido que emigrar a Lapurdi, París, Bearne y otras ciudades francesas. Es por ello que en los últimos años, los pueblos se han vaciado y se han tenido que unir para formar nuevas unidades; es el caso de Lakarri-Arhane-Sarikotagine, por ejemplo, la localidad ha perdido en el siglo XX 3/4 partes de la población que tenía en 1900.

Zuberoa es la provincia con la mayor tasa de mortalidad de Euskal Herria, pues en ella se encuentra la población más anciana: por cada 100 jóvenes viven en ella 174 ancianos. En relación a los movimientos de migración, las décadas de los 60 y 70 dieron claros saldos negativos, esto es, fueron más quienes dejaron la provincia que quienes fueron a vivir a ella. Esta tendencia en cambio, ha ido paulatinamente bajando hasta que entre los años 1999-2005, ha dado saldo positivo: han sido 82 más las personas que han llegado que las que han emigrado.

Zuberoak Euskal Herria behar du, eta Euskal Herriak Zuberoa. EZAGUTU DEZAGUN!

LA MASKARADA DE ZUBEROA

La Maskarada de Zuberoa es la FIESTA DE CARNAVAL SULETINA, un espectáculo con un guión concreto dotado de recursos teatrales. Es una fiesta de origen antiguo, llegada hasta Zuberoa desde Europa por la corriente que allí existía en el siglo XVI. A pesar de que antiguamente eran alrededor de 80 los participantes en el espectáculo –y eran más las Maskarada que simultáneamente se organizaban– (tomemos en cuenta que Zuberoa tenía más jóvenes y habitantes), actualmente son unos 20 los que forman el grupo. Antiguamente daban comienzo el 1 de enero en la localidad organizadora, dándoles fin en la semana de carnaval en el mismo lugar. Y sólo la representaban los hombres, independientemente de tomar papeles masculinos o femeninos. Hoy en día, se inician hacia mediados de enero, y terminan a finales de abril, actuando en muchas plazas de Zuberoa. Cada año, una nueva localidad toma el testigo, actuando cada domingo en el resto de localidades suletinas.

Según la zuberotarra Nicole Lougarot, autora del libro *Les Bohémiens* (2009), las Maskaradas son parte de un ritual gitano.

Las danzas, bertsos y cantos tienen un lugar preferente en el espectáculo guiado por varios personajes bien definidos. En este espectáculo, destacamos las coplas cantadas por los afiladores (xorrotxak), los saltos de los dantzaris principales, los diálogos de los caldereros, el acto de los afiladores, el discurso del rey de los gitanos, el discurso de Kabana, jefe de los caldereros y el testamento y la operación quirúrgica realizada a Pitxu, los graffitis de los caldereros y el médico...

PERSONAJES

Actualmente unas 25 personas conforman el grupo y se reparten en dos grupos contrapuestos: por un lado los Gorriak (rojos), elegantes y ordenados, algunos de ellos muy buenos bailarines, sedentarios y, por otro lado los Beltzak (negros), desordenados, andrajosos, sucios, algunos de ellos errantes. De entre estos últimos destaca Pitxu, uno de los caldereros, provocador incansable y corazón de toda la Maskarada.

Los siguientes son los principales personajes de las Maskaradas de Zuberoa. De entre los rojos, los cinco primeros son los denominados aitzindariak (dantzaris principales).

- TXERRERO: Tiene una vara en cuyo extremo cuelga una cola de caballo. En la cintura lleva seis cencerros de bronce. Tal y como sucede en otros actos de carnaval (Joaldunak de Ituren y Zubietta), al bailar la Barrikada, pasa la cola de caballo por el suelo ahuyentando los malos espíritus.
- GATÜZAINA: tiene un instrumento parecido a un pantógrafo: con él puede coger cualquier cosa.
- KANTINIERSA: Cantinera vestida como las que había en el s. XIX. Anteriormente ocupaba su lugar una buhamina (gitana). Se puso la primera en bienvenida al Príncipe Louis Lucien Bonaparte. Toma parte en el acto de los castradores.
- ZAMALZAINA: El caballo, uno de los principales personajes de la Maskarada.
- ENTSEÑARIA: Lleva la bandera de Zuberoa. Junto con Zamalzain, uno de los mejores bailarines de la representación.

- JAUNA ETA ANDEREA (El señor y la señora). Ellos mandan y guían los actos de la Maskarada. Él viste un frac, un bastón y un sable (que afilaran los xorrotxak posteriormente). Ella un ligero vestido blanco.
- LABORARIA ETA LABORARISA (El labrador y la labradora). Vestidos de negro. Él lleva un aguijón y ella una cesta.
- MARETXALAK: Los herreros de Zamalzain (en grupos de 3 ó 4). Llevan una chaqueta roja y calzones negros.
- KERESTUAK (castradores). Los dos que castran a Zamalzain, el patrón y el chico, hablan bearnés (occitano). De todas formas es difícil decir si son personajes rojos o negros.
- KÜKÜILEROAK. Los más jóvenes, no tienen ciertamente una labor definida, pero aprenden a participar en las Maskaradas del mañana.

Entre los personajes negros se encuentran...

- XORROTXAK (afiladores), el patrón y el chico. Suelen afilar el sable del Señor y tienen gorras ornamentadas con ardillas disecadas. Suelen también cantar las coplas entre diferentes actos.
- BUHAMEAK (gitanos). Los cuatro participantes utilizan sus espadas de madera para bailar. BUHAMEEN ERREGEA (el rey de los gitanos) manda en el grupo. Visten trajes hechos con un patrón de tela de vivos colores.
- KAUTERAK: Son cinco o seis, uno (BEDEZIA edo GARRETA) vestido de médico. Usan bastones hechos con raíces, una cola de zorro, cencerros de bronce, y un sombrero negro con plumas en la cabeza. Usan ropa vieja y ajada, como símbolo de nivel humilde. Cumplen el papel de los antiguos caldereros, quinquis o

quincalleros, pues arreglan una cacerola al señor de la Maskarada. El gran KABANA es el jefe del grupo (en tiempos de Agosti Xaho recibía el nombre de Oberñi). Sus ayudantes son PUPU, PITXU, FRIPU, y en menos ocasiones TTUTTU, GIRRU, BIZUNU, PETRU,... En alguna ocasión han aparecido las caldereras (KAUTERESAK) como PUPUNA o FRIPUNA en la Maskarada. En el olvido han quedado otros: el pastor y los corderos (*artzaina eta atxuriak*), el barbero, el notario, la española, los deshollinadores, los mendigos y el obispo. Otros, en cambio, como BUHAMINA (la gitana) o HARTZA (el oso), hacen su aparición de forma esporádica.

PARTES

Las Maskaradas se llevan a cabo en dos actos, uno por la mañana y otro por la tarde.

Barrikada haustia (la rotura de la barricada, por la mañana). Una vez llegados a la localidad, el grupo visita diferentes casas del pueblo. Con el sonido de la Arribada, visitan las principales casas de la villa, en donde después de bailar, reciben comida y bebida. Antiguamente se colocaban barricadas de verdad, y de ahí le viene el nombre a este acto.

Sesión de la tarde. Hacia las 3 ó 4 de la tarde, comienza la sesión en el frontón de la localidad. En esta sesión se intercalan bailes, las actuaciones de los oficios, discursos, cantos y coplas.

Estas son los principales actos de la tarde:

- Se bailan las MUÑEINAK y MARIANAK.
- MARETXALAK: Bailan alrededor de Zamalzain para capturarlo y herrarlo.

- BRALEA: Los rojos tomando a las chicas que están en el público forman una cadena. Son tres los apartados de esta danza, KONTREPASAK (realizando el salto lentamente), BRALETIK JAUZTEA (los aitzindariak muestran sus mejores puntos), y KARAKOILTZEA: Entseñaria lo guía y mueve la cadena desde dentro y desde fuera. Sería la vuelta de los tiempos. Junes Casenave-Harigile comenta que es un baile al sol, para honrar a la vida y la luz.
- Dantzaris principales: OSTALERSA (danza).
- XORROTXAK: Los afiladores entran en la plaza, saludan con sus coplas con el objeto de afilar el sable del Señor. Como ocurre con los castradores, tendrán tres intentos. En el primero, el patrón despidе al chico, en el segundo, llama a Pitxu y hace peor el trabajo, finalmente vuelve a contratar al chico y termina bien el trabajo.
- KERESTUAK: Tienen el objetivo de castrar a Zamalzain. Para entrar en la plaza utilizan la marcha de los gitanos. En la danza parodian la castración de Zamalzain: el chico no acierta y el patrón lo despide. El patrón contrata un nuevo chico (Pitxu, llamándolo con *Hou Pitxu hou!*) y comprueba que éste es más inútil que el anterior (lo intenta con la Kantinierra en vez de Zamalzain). Finalmente vuelve a contratar al chico y terminan bien la faena, lanzando los testículos del caballo al público.
- Los dantzaris principales bailan la GABOTA, una danza coral que bailan en círculo.
- BUHAMEAK: Entran en la plaza sacando un montón de ruido. Bailan salvajemente con sus espadas de madera y el rey proclama sus aventuras por todo el mundo.
- GODALET DANTZA (baile del vaso). Colocan un vaso de vino enfrente de los Señores y cada bailarín ha de bailar encima del mismo. Es un baile muy difícil, pues cada dantzari ha de saltar encima del vaso sin romperlo ni derramar su contenido. Bailan los aitzindariak y Pitxu les sigue al final con sus grandes botas.
- KAUTERAK: Primero bailan su danza particular, agachados y balanceando sus gorros contra el suelo. Posteriormente, Kabana, con un libro en la mano dando vueltas en la plaza, lee su discurso al público. Tomemos en cuenta que Kabana, con total impunidad, puede hacer una dura crítica de la gente o mandatarios del pueblo que visita. Después, reciben del Señor el encargo de arreglar un caldero. Lo arreglan y el Señor echa las monedas al suelo. Los caldereros se tiran al suelo y Pitxu queda debajo de todos. Al levantarse, descubren que Pitxu ha muerto. Llega el médico e improvisan un quirófano agachados los gitanos y caldereros (año tras año, el médico saca del cuerpo de Pitxu multitud de objetos: gatitos muertos, cabezas de gallina, caramelos...). Mientras Kabana lee el testamento de Pitxu... finalmente, Pitxu resucita y sale vivo.
- Cantan todos, la última canción.
- Para finalizar, bailan la Arribada, bien los dantzaris como el público presente.

REPRESENTACIONES FUERA DE ZUBEROA

Generalmente la Maskarada no se representa fuera de Zuberoa, aunque esporádicamente se ha representado en la zona de Baiona.

Fue el 9 de mayo de 1954 en Hego Euskal Herria, cuando Gaztedi bailó por primera vez algunas danzas de Zuberoa gracias a las clases del grupo Dindirri. Gaztedi representó en febrero 1994 en Santutxu (Bilbo) y después en Aretxabaleta su primera Maskarada completa, sin duda alguna un hito histórico en este tipo de carnaval. Hasta entonces sólo el grupo Argia de Donostia había conseguido representar una en la década de los 80. Mientras estos últimos la representaron tal y como se hace en su lugar de origen, Gaztedi la adaptó a la realidad sociocultural de Bilbao y Santutxu... en euskara batua y en gallego, por parte de los castradores.

FUENTES:

- Mascarades et Bohemiens (web de Nicole Lougarot) - <http://mascarades.eu/>
- Wikipedia.
- ARGIA astekaria. 2007/01/07 | 2002/01/27.
- Les Bohemiens (Nicole Lougarot). Gatuzain argitaletxea. ISBN: ISBN 2-913842-50-X
- Zuberoako Maskaradak – Euskal Herriko kale-antzerkiaren aintzindari (ISBN: 84-88379-51-X).
- Maskaradak – Les Mascarades - Sü Azia sail berezia (<http://ttiki.com/33800>).
- Euskaltzaindia - Kepa Fernandez de Larrinoa (<http://ttiki.com/33802>).
- Euskonews (<http://ttiki.com/33801>).
- Godalet danza. <http://ttiki.com/33849> | <http://ttiki.com/33861>
- Euskomedia. Zuberoako Maskarada (<http://ttiki.com/33850>)
- Enciclopedia Auñamendi - <http://ttiki.com/33915>

Erakusketarako prestatutako argazkiak (A3 tamainan)
(Fotografías de la exposición – tamaño A3)



1. Zamalzaina (xehetasuna)

Zamalzain (detalle - détail)

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)




2. Entseñaria eta Kantiniersa

Entseñaria y Kantiniersa

Entseñaria et Kantiniersa

(Hoki - 2003/04/13 – Sohütako taldea)



3. Goizeko barrikadak

Barricadas por la mañana

Barricades le matin

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



4. **Zamalzaina**
Zamalzain
(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



5. Maskarada Altzürüküko plazan

Maskarada en la plaza de Altzürükü

Mascarade à la place d'Altzürükü

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



6. ... eta ni, buhamien erregia!!!

... ¡¡¡y yo soy el rey de los gitanos!!!

... et je suis le roi des gitans!!!

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



7. Eskiulako xorrotxak
Los afiladores de Eskiula
Les rémouleurs d'Eskiula
(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)



8. Txerrero Zalgizeko plazan

Txerrero en la plaza de Zalgize

Txerrero à la place de Zalgize

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



9. Barrikadetan dantzan

Bailando en las barricadas

Dansant aux barricades

(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)



10. Buhameak

Gitanos en Zalgize

Gitans à Zalgize

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



11. Buameak Maulen

Gitanos en Maule

Gitans à Maule

(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)



12. Jauna eta Anderea

El Señor y la Señora

Le Monsieur et sa Dame

(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)




13. Barkoxeko Pitxu eta Fripu, kauterak, Muskildin

Pitxu y Fripu de Barkoxe, quincalleros, en Muskildi

Pitxu et Fripu de Barkoxe, quincailleurs, à Muskildi

(Muskildi - 1995 – Barkoxeko taldea)



14. **Txülulari eta atabalariak**

Los músicos, imprescindibles en la Maskarada

Les musiciens, essentiels dans le Mascarade

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



15. Laboraria eta Jauna dantzari

El labrador y el señor bailan
Le paysan et le Monsieur dansent
(Eskiula – 1996)



16. Pitxuren ebakuntza, bedeziaren (medikuaren) esku dago

La operación quirúrgica a Pitxu, en manos del médico

L'opération chirurgicale à Pitxu, faite par le médecin

(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)




17. Entseñaria jauzian godalet dantzan

Entseñaria saltando en el baile del vaso

Entseñaria dansant la danse du verre

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



18. **Txerrero, gibelean Zamalzaina, Zalgizeko plazan**

Txerrero, detrás Zamalzain, en la plaza de Zalgize

Txerrero, derrière Zamalzain, à la place de Zalgize

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



19. **Kerestu nagusia Pitxuren xerka (Hou Pitxu hou!)**

El patrón de los castradores llama a Pitxu al trabajo
Le patron des hongreurs appelle la collaboration de Pitxu
(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



20. **Xorrotx nagusia Pitxurekin lanean**

El patrón de los afiladores trabaja con Pitxu

Le patron des rémouleurs travaille avec Pitxu

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



21. Xorrotx nagusia morroiarekin lanean

El patrón de los afiladores trabaja con su ayudante


Le patron des rémouleurs travaille avec son garçon

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



22. **Gatüzaina eta Kantiniersa Urdiñarbeko Maskaradan**

Gatüzaina y Kantiniersa en la Maskarada de Urdiñarbe
Gatüzaina et Kantiniersa dans la Mascarade d'Urdiñarbe
(Urdiñarbe – 1993 - Urdiñarbeko taldea)



23. **Kerestuak Zamalzaina zikiratze lanetan**

Los castradores castran a Zamalzain

Les hongreurs castrent le Zamalzain

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



24. **Gatüzaina eta Kantiniersa Zalgizeko plazan**

Gatüzaina eta Kantiniersa en la plaza de Zalgize

Gatüzaina et Kantiniersa à la place de Zalgize

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



25. **Küküileroak, etorkizuneko Maskaraden partehartzaileak**

Küküileroak, los actores de las Maskaradas del mañana

Küküileroak, les acteurs des Mascarades de l'avenir

(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)



26. Xorrotxak kopla bat kantatzen

Los afiladores cantando una copla

Les rémouleurs chantent un vers

(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)



27. Eskiulako Maskaradak emandako azken kantorea

La última canción de la Maskarada de Eskiula
La dernière chanson de la Mascarade d'Eskiula
(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)



28. Garai zaharretan gizonen soilik antzezten zituzten Maskaradak

Antiguamente, sólo los hombres representaban las Maskaradas

Jadis, seuls les hommes jouaient dans les Mascarades

(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)



29. **Barrikadetan Muskildin**
Barricadas en Muskildi
Barricades à Muskildi
(Muskildi - 1993 – Urdiñarbeko taldea)



30. Pitxu oker dabil emandako lanean

Pitxu no hace bien su trabajo

Pitxu ne fait pas bien son travail

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



31. Kerestuak eta buhameak dantzan

Los castradores y gitanos bailan
Les hongreurs et les gitans dansent
(Maule – 2002/03/23 – Eskiulako taldea)



32. **Dantza egin artean bada beti hizketan aritzeko denbora**

Entre bailes, siempre queda tiempo para la conversación

Entre danses, il y a toujours du temps pour discuter

(Muskildi - 1993 – Urdiñarbeko taldea)



33. **Lagünak**
Amigos
Amis
(Muskildi - 1993)



34. **Barrikadetan**

En las barricadas

Aux barricades

(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)



35. **Buhamina, Maskaradan noizbehinka agertzen den pertsonaia**

La gitana aparece esporádicamente en la Maskarada

La femme gitane apparaît sporadiquement dans le Mascarade

(Muskildi - 1995 – Barkoxeko taldea)



36. Urdiñarbeko Bixintxo dantzarako prestatzen ari da

Bixintxo de Urdiñarbe, se prepara para bailar en Muskildi

Bixintxo d'Urdiñarbe se prépare à danser à Muskildi

(Muskildi - 1993 – Urdiñarbeko taldea)



37. Barrikadak Muskildiko plazan

Barricadas en la plaza de Muskildi

Barricades à la place de Muskildi

(Muskildi - 2000 – Barkoxeko taldea)



38. Urdiñarbeko aintzindari beltzak Muskildin

Los principales bailarines negros de Urdiñarbe en Muskildi

Les principaux danseurs noirs d'Urdiñarbe à Muskildi

(Muskildi - 1993 – Urdiñarbeko taldea)



39. **Buhameak**

Gitanos

Gitans

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



40. Dantzaria (xehetasuna)

Bailarín (detalle)

Danseur (détail)

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



41. **Kauterak**

Caldereros

Quincailliers

(Zalgize – 2002/03/24 – Gamere-Zihigako taldea)



42. Pitxu eta bi xorrotxak

Pitxu y los dos afiladores

Pitxu et les deux rémouleurs

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



43. **Barrikadetan**

En las barricadas (Altzürükü)

Aux barricades à Altzürükü

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



44. **Kantiniersak**

Cantineras

Cantinières

(Muskildi - 1995 – Barkoxeko taldea)



45. **Barkoxeko Xorrotx nagusia eta Pitxu lanean**

El afilador de Barkoxe y Pitxu trabajando (Muskildi)

Le rémouleur de Barkoxe et Pitxu travaillent (à Muskildi)

(Muskildi - 1995 – Barkoxeko taldea)



46. **Barrikadetan**

En las barricadas

Aux barricades

(Eskiula – 1996)



47. **Entseñaria eta Zamalzaina jauzian**

Entseñaria y Zamalzain en el salto
Entseñaria et Zamalzain font le saut basque
(Eskiula – 1996)



48. Kauterak (Pitxu eta Kabana)

Caldereros (Pitxu y Kabana)

Quincailliers (Pitxu et Kabana)

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)



49. **Zamalzaina**
Zamalzain
(Arrokiaga – 2003-02-23 – Sohütako taldea)



50. Kauterak

Caldederos

Quincailliers

(Altzürükü – 2001 – Ligi-Athereiko taldea)